

**ERREPORTAJEA OSTEGUNETAKO AZOKA · GEHIGARRIA JUANITO GOROSTIZARI ELKARRIZKETA**  
**KULTURA IGOR PALOMINO KULTURA ZINEGOTZIARI ELKARRIZKETA**

# BARREn

ASTEKARIA



**500 ale, 1.000 kontu!**



Erantzuna Udal Euskaltegian  
La respuesta en Udal Euskaltegiak

## 2004/2005eko EUSKARA IKASTAROAK

**Eskaintza:** EUSKALDUNTZE maila guztiak,  
ALFABETATZEA, EGA.

**Erritmoak:** 2 ordu egunean, ordu eta erdi egunean.

**Iraupena:** Iraila-ekaina.

**IKASTARO bereziak:** GURASOAK, ENPRESAK, EGA ikastaroak (larunbatetan) MINTZAPRAKTIKA ikastaroak, HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (Osakidetza, Administrazioa, Hezkuntza).

**ORDENAGAILU GELA:** HEZINET, ordenagailu bidezko programa osagarria.

**Matrikula epea:** Irailaren 1etik 24ra.

**Beka sistema daukagu. Galde ezazu!**

**UDAL**  
EUSKALTEGIAK



[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

**DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea**

Nafarroa Enparantza 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel./Faxa: 943 74 27 31 • [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behe**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



### Gure historiaren protagonistak

500.alea da eskuartean duzuen hau. 12 urteko emaitza, izerdi askoren fruitua, lan eskerga egin duten lagun askori esker jasotako uzta. Niri egokitu zait gaur zenbaki biribil eta berezi honen gainean lau hitz esatea, eta pentsa dezakezuen bezala, niretzat esanahi berezia dauka ale honek. BARRENen estreinako alea kaleratu zenean ez zegoen jakiterik biharamunean BARRENek berriz argia ikusiko zuen edo ez. Dena hain zen berria! Baina poliki-poliki, astero astero, BARRENek aurrera egitea lortu zuen, ahalegin eta lan handia eginez jakina, eta ostiralero, 24 orrialdetan, Elgoibarren gertatzen zen guztiaren –edo ia guztiaren- berri ematen zuen aldizkaria osatzen genuen. Hura zen poza, ostiral arrastietan, alea inprentatik bulegora iristen zenean!

Orduko poz haren parekorik ez dit sorrarazi ondoren egin dudana beste lanik. Halako ahalegina, halako esfortzua zen astero BARREN ateratzea! Askotan, erdi txantxetan esaten genuen, ostiraletan BARREN eskuartean izatea, erditzea bezala zela. Gogoan dut 100. alea ere egin genuela, eta sei urte eta piku buru-belarri aritu eta gero, BARREN uzteko garaia ere iritsi zela.

500 zenbakiotan zehar milaka aurpegi ezberdin erakutsi dizkigu BARRENek, ehunka notizia eta gertaera plazaratu dira, ezagutzen ez genituen pertsonaia eta txoko berri asko ezagutu ditugu. Baina nire ustez garrantzitsua da, BARRENek gure historiaren protagonista bihurtu gaituela.

Zorionak, eta bete ditzala beste horrenbeste!

Ainhoa Lodoso



### Asmo onak

Irailean gaudela-eta, oporrek laga diguten arrasto goxoa mantentzeko goguakin gabiz hilabete gogor honi koloria eman nahixan:

- Hasi naun Salorentzora pasiaran egunero, etxakiñ zer ondo, tippi-tappa, ordu erditxan egin jonat bueltia eta horrela egunero udako kilo extra guztixak gaiñetik kendu eta gogor-gogor jarri bihar naun!
- Joño, nik ezin jonat egin hori, umiekin ezinezkoa, uff! Baiña goikuak bizikleta estatikua jaukan eta eskatu egin jonat: hor nabin, gabero telebisiñuan aurrian jarri eta “Bertatik-bertara” osua ikusi orduko buelta demasa eginda!
- Bizikletia? Buenooooo, egin ditzudaz nik horrelakuak baiña aspertu eitzen nindujan, behin ere balkoian ipini nabanen armatostia, kaletik pasatzen zanari begira entreteniduta egoteko baiña, ke ba, azkenian neri begira jartzen zitunan eta lotsatuta laga egin nabanen!
- Zer zabiztie? Plan berrixekin? Nik ez jaukanat astirik horrelakuetan ibiltzeko baiña inbidixia ematen didazue! Pentsatzen hasi biharko naun ba, zer egin leiken, tira, Gabonak helduko ditxun eta denak topera egongo zerate eta ni ordia estresauta betiko moduan!
- Trankil! Ikusiko jonau asmo onarekin hasi gaitxun .... ia norarte aguantatzen diñagun!

Eta bitxartian batzuk pozik hasitxakuarekin, beste batzuk zer berrixa asmau eziñik eta azken batzuk betiko moduan hor gabiz egunari bueltia eman nahixan: aurrera goaz, ez dala makala.

Animo asmo onei ekin diozuenei... eutsi horri!

Edurne Bilbao

asteko notizia

Kexak .....	5
motZ MotZ .....	8
gehigarria .....	13
kiROLak .....	20

## SAN BARTOLOMEAK 2004

2004ko San Bartolome jaiak bukatu dira eta Udaleko Kultura Batzordeak hauek antolatzeke eta ondo joateko eskaini duzuen laguntza eta ahalegina eskertu nahi dizue. Jai bikainak izan dira bertan lagundu duzuenoi esker.

Aldi berean, hemendik aurrera antolatuko diren ekintza eta festetan elkarlanean jarraitzea animatzen zaituztegu elgoibartar guztion onerako. Begirunerik handienaz, agur bero bat.

**Igor Palomino Zubiaurre**  
Kultura Batzordeko lehendakaria

## ARREGITORREKO BABES OFIZIALEKO ETXEEN ADJUDIKAZIOAREN INGURUAN

BARREN astekariak eskaintzen dizkidan lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke Elgoibarko Udalarri zenbait galdera lutzatzeko.

Lehenik eta behin, mesedez esplikatu dezala noiz eta nola egin den Arregitorreko babes ofizialeko etxeen adjudikazioa. Ez dut inolaz ere zozketaren legalitatea zalantzan jartzerik nahi, ezta ere etxea tokatu zaien pertsonak babes ofizialeko etxe baten beharra dutenik. Hala ere, Elgoibarko Udalak eta Sukibide promotorak zozketa honen inguruan eraman duten ixiltasuna salatzea nire obligazio morala dela iruditzen zait. Ubitarte Buruko etxeen zozketaren berri hainbat aldiz izan dugu DV eta BARREN astekarian, ez ordea Arregitorreko etxeen berri. Nola eraman da guzti hau?

Beharbada Udala babestu daiteke promotoraren esku uzten zozketa, eta iluntasun honen erru guztia promotorari erantsi diezkie. Ez dut bidezkoa ikusten jarrera hau, diru publikoak hitzegiten ari garenean, eta are gehiago, gazte askok pairatzen duten arazo larri baten inguruan, Udalak ahal duen guztia egin behar luke herritarrei eta interesatuei zozketa eta adjudikazioa nola egin den esplikatzeko. Transparentzia exijitu beharra dago kasu hauetan.

Zergatik ez da publikoa izan zozketa? Modu honetara ikusiko zen zein sartzen den zozketan eta zein ez. Eusko Jaurlaritzak sustatutako etxeen zozketa guztiak publikoak dira, Elgoibarko Udalak sustatutakoak ordea ez. Zergatik?

Are gehiago, Etxebide-ko web orrialdeari so eginez gero, gaur, kooperatibek sustatutako babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena arautuko duen Agindu berria indarrean sartuko da, horrela euskal etxebizitza babestu guztiaren esleipen era zozketaren bitartez ezartzearen prozesua isten delarik, sustatzailea edozein izanda ere. Eusko Jaurlaritzak, Udaletxeek eta sustatzaile pribatuek bultzatutako etxebizitzetan zozketaren derrigortasuna ezarri ondoren, mota honetako sustapenak bakarrik falta ziren arautzeko.

Beraz "kasualitatez" araudia aldatu egin da abuztuaren 31an. Eta zozketa uztailean egin zen? "In extremis"?

I. G. A. - 15400422J  
I. U. S. - 15391513M  
A. R. I. - 15395990 C

## Urruzunoren begi ezkutua Bakoitzari berea




Ni ez nintzen mendizale jaio. Atal honetan lehenengoz idatzi nuenean azaldu nahi izan nuen, jendeak irakurriko zuen zerbait idazteak ikaratu egiten ninduela. Horretarako, lehenengoz mendi piko batera igo nintzenez sentitu nuena deskribatu nuen. Batzuek ulertuko zuten. Orduko hura gogoan, joan den astean bizitakoa ekarri nahi nuke hona. "Bakoitzari berea" esan ohi da askotan eta mendizaleari ere berea. Eta joan den astean Pirinioetara joan ginen, aspalditik egin nahi genituen bi mendi buruan. Lehenengoa gainerakoetan bezala iruditu zitzaidan ikaragarria. Baina bigarrena ezberdina izan zen. Zailtasuna, garaiera, hainbeste itxarondakoa lortzea... goian isilik egon nintzen. Jaitsi eta malko bat ere erori zitzaidan. Orain, etxean egonik ni, han goian egonik bizitako guztia, halako sentimendu berezi batek hartzen nau berritri. Nire adineko lagun mendizalerik ez dut inguruan, baina hemen behean, mendi piko horietan egon den norbaitekin topo egiten dudanean, bizitakoa elkarri kontatu eta beti pentsatzen dut: bakoitzari berea, mendizaleari ere bai.

Ainhoa Lendinez

## ASTEKARIA Barren

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Publizitatea:  
☎ 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
barren@topagunea.com  
Helbide informatikoa:  
www.topagunea.com/barren  
ARGITARATZAILEA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855




Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





◆ Emakume batek esan digunez, **jendeak zabor poltsak errekarra botatzen ditu**: “Errosario kaleko hainbat bizilagunek zabor poltsak errekarra botatzen dituzte. Lotsagarria da. Ibaia garbi mantentzeko sekulako lanak egiten ari dira, eta herritar batzuk ez dute ezer errespetatzen”.



◆ Herritar talde batek azaldu digunez, **oso gaizki iruditzen zaie ostegunetako azoka Sigmara eramatea**: “Ez dago eskubiderik. Azoka herri erdian egon behar da. Herriari bizitasuna ematen dio, eta herritarrok gauza ugari erosten ditugu bertan. Sigma oso urrun gelditzen da, jendea ez da joango eta azkenean saltzaileak ez dira etorriko. Azkenean azoka desagertu egingo da, eta pena handia emango liguke”.

◆ Emakume batek esan digunez, **Madalako autobus geltokian markesina bat behar da**: “Lehen Pedro Muguruza Etorbidean zegoen Mendarora joateko autobus geltokia, baina orain, Madalako errotondako semaforoaren ostean jarri dute. Ez dago markesinarik, eta euria egiten duenean, erabat bustitzen gara. Inguruan ez dago aterperik, eta ezin gara euriaz edo eguzkiaren beroaz babestu. Lehenbailehen markesina eta jarleku bat jartzea eskertuko genuke”.



◆ Herritar batzuk **San Bartolome jaietako hiruretako txupinazoaren antolatzaileak txalotu nahi dituzte**: “Zailtasunak zailtasun, aurtengoan ere lortu dute hiruretako txupinazoa botatzea, eta txalo bero bat merezi dute. Era berean, Giza Eskubideen Plazan bildu zen jende guztiari eskerrak eman nahi dizkiogu”.



### ESKERTZA



2004ko abuztuaren 9an, 79 urte zituela hil zen, **ANTONIO ASTIGARRAGA AROCENA "AMESTI"**ren emazteak, seme-alabak, bilobak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA



2004ko irailaren 1ean, 79 urte zituela hil zen, **VICENTE ETXABE ZUBIAURRE**ren emazteak, alabak, bilobak eta ginerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Ostegunetako azoka

## Herrian zeresan handia eman duen gaia



### RAUL ARGAI

Azokako saltzaileen bozeramailea

**“Azokak Sigman ez dauka etorkizunik, azkenean desagertu egingo da”**

► **Noiz izan zenuten azoka Sigmaraldatzeko jakinarazpena?** Uztaileko bigarren astean. Eskutitz bat jaso genuen irailaren 2an azoka Sigman muntatu behar genuela esanez. Ez zegoen beste azalpenik, arrazoirik ere ez ziguten eman.

► **Zein izan zen zuen erantzuna?** Abokatuak gomendatuta, Udaleko norbaitekin hitz egiteko zita eskatu genuen. Ez genuen alkatesarekin zita eskatu, ez genekielako bere ardura zen, edo beste departamenturen batena. Gure nahia arduradunarekin hitz egitea zen.

► **Zein izan zen Udalaren jarrera?** Ez ziguten erantzunik eman. Oporrak gainean ziren, eta denbora kontra genuen. Udalak oso gaizki jokatu zuen. Udako etenaldia aprobetxatu zuen erabakia hartu eta jakinarazteko. Juridikoki abuztua hilabete

hila da, herrian jende gutxi gelditzen da, eta oporrak hartzen ditugu. Hori ondo zekiten.

► **Ba al dakizue zein izan den arrazoia?** Udalera denuntzia bidali genuenean, trafiko arazo handiak sortzen zirela azaldu zuten, eta konpontzeko azoka Sigmar eramatea erabaki zutela jakinarazi ziguten.

► **Zein da zuen iritzia orain?** Trafiko arazoak erraz konpondu daitezkeela uste dugu. Astean goiz bat da, eta nahi izanez gero, irtenbidea bilatu daiteke. Udaltzainen bitartez trafikoa zaindu, edo beste batzuetan egiten den bezala, kaleak itxi egin daitezke. Gogoia izanez gero, konponbide erraza dauka arazo honek.


► **Sigmak betetzen al ditu azoka jartzeko beharrezko baldintzak?** Ez. Oraindik ez dugu neurtu, baina Plaza Handian baino

toki gutxiago dago, eskailera bidezko sarbidea dauka, eta hori debekatuta dago, gainera, eskailerarik jaitsi ezin dutenek sekulako buelta eman behar dute. Haize handia egiten du, eta errepidea oso gertu pasatzen da. Aparkalekua da, eta asteazken gauetan ezingo da bertan aparkatu.

► **Zein etorkizun dauka azokak Sigman?** Ez dauka etorkizunik. Herritarrek argi esan digute Sigmar ez direla joango, eta eroslerik gabe ez daukagu zer eginik. Barrakak ere bertan jartzen saiatu ziren, eta dagoeneko ez dira etortzen. Azkenean azoka desagertu egingo da.

► **Nola erantzun du herriak?** Oso ondo. Mila sinadura baino gehiago bildu ditugu, eta kontzentziora herritar asko etorri ziren. Eskerrak eman behar dizkiegu herritarrei, eman diguten laguntasun eta babesagatik.


### M<sup>a</sup> Eugenia Gonzalez (Txankakuako Presidentea)



“Azoka herri erdian egon behar dela uste dugu. Osteguna egun garrantzitsua da Elgoibarren, auzoetako, baserrietako, Altzolako edo Mendaroko bizilagunek ostegunean egiten dituzte erosketak garrantzitsuenak, eta kaleetan sekulako bizitasuna sumatzen da, eta hori da denon artean lortu behar duguna.

Ez dakigu zein den azoka aldatzearen arrazoia. Trafiko arazoa izan daiteke, baina guztion hoberako izango litzatekeen beste irtenbideren bat bilatu beharko genuke”.

### Iosu Etura (Usua Taberna Nagusia)



“Ez zait ondo iruditzen azoka lekuz aldatzea, Plaza Handia leku egokia dela uste dut. Herri guztietan herri erdian egiten da azoka, Eibarren adibidez Unzagan bertan jartzen dute, eta Elgoibarren ere hala izan beharko litzateke. Nire ustetan, jendea ez da Sigmaraino joango erosketak egitera, oso

urrun gelditzen da. Azokak herriari bizitasuna ematen dio, eta erabaki hau Plaza inguruko komertzio eta tabernentzako kaltegarria izango delakoan nago.”.

*Ostegunetako azoka Sigmara aldatzeko erabakiak polemika handia sortu du herrian. Azkenaldian herritar guztion ahotan dabilen gaia da, eta gaurkoan bi alderdien ahotsa jaso dugu. Elgoibarko Udalak joan zen uztailean jakinarazi zien azokako saltzaileei hartutako erabakia, baina saltzaileei eta herritarrei ez zaie aldaketa hau gehiegi gustatu.*

*40 saltzaile inguru biltzen dira astero-astero Plaza Handian, eta erabaki honen eraginez beraien lanpostua kolokan ikusten dute. Duela 10 urte inguru ospatzen da azoka Plaza Handian. Lehen Plaza Txikian izaten zen, eta orain Sigmara aldatu nahi dute. Alkatea atzo bildu zen azokako saltzaileekin, baina bilera horren berri datorren astean emango dizuegu.*

## MARIVI AGIRREGOMEZKORTA

Elgoibarko alkatea

### “Trafiko arazoak konpontzeko hartu dugu azoka Sigmara aldatzeko erabakia”



► **Zergatik hartu du Udalak ostegunetako azoka Sigmara aldatzeko erabakia?** Arrazoi nagusia trafiko arazoarena da. Aspalditik geneukan pentsatuta ostegunetako azoka Plaza Handian ezin genuela mantendu, trafikoarekin sekulako arazoak sortzen direlako. San Bartolome eta Errosario kaleak jendez betetzen dira, eta autoak ezin dira ibili. Gainera azkenaldian toki asko hartzen zuen azokak. Eliza aurre guztia hartzen zuten, eta hori ezin dugu mantendu.

► **Gure herrian, trafiko arazoak ordea, egunero daude...** Bai, eta gure betebeharra arazo horiek konpontzea da. Orain alde zaharraren ikerketa egiten ari gara, trafikoari sekulako garrantzia emanez. Ahal den neurrian arazo hori konpontzen saiatu behar gara.

► **Azpiegitura aldetik Sigmak betetzen al ditu beharrezko baldintzak?** Bai. Lekua aztertu dugu, eta Plaza Handian baino toki gehiago dago. Autoak sartzeko hiru sarbide daude, erosle eta saltzaileen ibilgailuak aparkatzeko toki gehiago dago, eskailerak egon arren, ezinduentzako sarbidea dago, nahi duenak kafea hartzeko aukera ere badauka... Herriaren beste aldean bizi denari urrun dagoela irudituko zaio, baina Plaza Handitik berehala iristen da.

► **Azokako merkatariek dioten moduan azokaren etorkizuna kolokan egon daiteke Sigmara aldatuz gero?** Ez dut uste. Azokara joan nahi duena, joango da. Plaza Handitik, 300 metro gehiago besterik ez daude Sigmaraingo, eta gainera bidea laua da. Saltzaileak protestan hasi dira, baina probatu gabe ezin da ezer esan. Gure ustez, Plazan baino hobeto moldatuko dira.

► **Herritarrak ez daude guztiz ados erabaki honekin. Espero al zenuen herriak honela erantzun zutenik?** Egia esateko, ez. Ohiturak aldatu egin behar dira. Herritarrak Plaza Handira etortzera ohitu dira, eta aldaketak ez zaizkie gustatzen. Nik uste dut, Sigmara joaten ere ohituko direla.

► **Zein izan da azokako saltzaileen jarrera?** Gure kontrako emendakina sartu zuten, eta abuztuan juizioa izan dugu. Ez dute jarrera oso egokia erakutsi. Gainera beraiek euren jarrera defendatu behar dute, eta guk herriarentzako hoberena dena egin nahi dugu.

► **Hartutako erabakia atzera bota ezinezkoa da?** Erabakia hartuta dago. Azokako saltzaileekin hitz egingo dugu, eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

## Manuela Mochales (ETXEKOANDREA)



“Ez naiz asko joaten azokara, baina nik Plaza Handian utziko nuke. Astean goiz bat besterik ez da, eta ez dut arazo handiegirik ematen duenik. Herritarrak oso gustura joaten dira azokara, ezagunekin elkartu eta azoka giroaz gozatzera. Jende asko biltzen da egun honetan eta herrian giro oso polita egoten

da. Gainontzeko herrietan ere ospatzen da azoka, eta ohitura hori galtzea pena izango litzateke. Aspalditik dator azokaren tradizioa Elgoibarren”.

## Justa Lopez (ETXEKOANDREA)



“Oso gaizki iruditzen zait azoka Sigmara eramatea. Ni beti joaten naiz azokara giroa ikusi, lagunekin elkartu, edo zerbait erostera. Ostegunetan jatekoa eginda uzten dut etxean, azokara presarik gabe joateko. Herritar moduan nire babesa erakutsi diot azokari, eta gainontzeko herritarrek ere gauza bera egin beharko

lukete. Jende asko bildu ginen azokaren leku aldaketa salatzen manifestaldian, baina jendeak gehiago borrokatu beharko lukeela iruditzen zait. Hainbeste urtetako tradizioa ezin da galdu”.

## 1.818.000 euro jasoko ditu Udalak herriko ingurune zaharkituak berritzeko Eusko Jaurlaritzaren Izartu II programatik

Debabarrenako Eskualdeak 9 milioi euro inguru jasoko ditu

**H**erriko ingurune zahartuak berritzeko Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Izartu II programatik 9 milioi euro inguru jasoko ditu Debabarrenako Eskualdeak. Hasiera batean Debabarrenako Udalek aurkeztutako proiektuan 36 milioi eurotako diru laguntza eskatzen zen, eta Eusko Jaurlaritzak laurdena eskaini du, gutxi gorabehera Euskal Autonomia Erkidegoko gainontzeko herrialdeetan eman duen diru kantitate bera. Proiektu hauek Debegesak (Eskualdeko Garapen Ekonomikorako Elkarte) bideratu ditu, Debabarrenako Udalekin elkarlanean.



*Oraindik erabakitze dago zein zonalde berritiko diren.*

### Ermuak diru gehien

Debabarrenako Eskualdean bost herrik jasoko dute diru laguntza Eusko Jaurlaritzatik: Ermua, Soraluze, Mutriku, Mallabia eta Elgoibar. Hauen artean, Ermua izango da Eusko Jaurlaritzatik diru

gehien jasoko duena. Bizkaiko herriak 2.314.000 euro jasoko ditu. Bigarren lekuan Elgoibar dago. Gure herriak 1.818.000 euro jasoko ditu Eusko

Jaurlaritzatik, bertako zonalde zaharkituak berritzeko. Soraluzek 1.669.000 euro, Mutrikuk 1.616.000 eta Mallabiak 1.329.000 euro jasoko dituzte.

### Kiribilka egitasmoak gaur arratsaldean ireki du udazkeneko programa

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek zuzentzen duen Kiribilka programak lau saio eskainiko ditu udazken honetan. Hiru eta zortzi urte bitarteko haurrei eta beraien gurasoei zuzendutako saioak izango dira. Eskulanak, jolasak, abestiak eta dantzak izango dira saio hauetako osagaiak.

### Urriaren 15ean azkena

Aurtengo Kiribilka programa urriaren 15ean bukatuko da. Ordura arteko saioak Plaza Handian ospatuko dira, baina programari amaiera emateko, Herriko Antzokian egingo dute jaialdia.

### Joxe Kruzelegi "Katalotza" soinu jolea hil da

Joxe Kruzelegi Arozena "Katalotza" trikitilari elgoibartarra hil zen joan zen irailaren 6an, 82 urterekin. Hamasei urte zituela hasi zen trikitixa jotzen, eta hainbat herriko erromeriak alaitu zituen Juliana Zubizarreta pandero jolearekin batera: "Kurutzeta baserrian jo genuen lehenengo aldiz. Batere entseatu gabe joaten ginen erromerietara, ongi moldatzen ginen eta ez genuen entsegu beharrik" gogoratu izan du Julianak.

Trikitia maite zuen Katalotzak. Bere kabuz ikasi zuen, eta zaletasunagatik jotzen zuen trikitixa.

1921ean jaio zen Azkarate azpiko Parapan baserrian. Bost alabaren aita zen, eta aroztegi batean lan eginez irabazten zuen eguneroko ogia.



### Omenaldia Kurasaalean

Iaz Juliana Zubizarreta omendu zuten Nazioarteko Trikitixa Jaialdian eta aurtengoan Joxe Kruzelegi "Katalotza" omendu behar zuten Donostiako Kurasaal aretoan.



## Miski Elkarteak 4.820 euro bildu ditu

Ekainean jarri zuen Miski Elkarteak Peruko haurrentzat dirua biltzeko kanpaina. Abuztuaren 29an bukatu zen kanpaina honen lehenengo zatia, eta guztira 4.820 euro bildu dira. 1.026 euro Elgoibarko Udalak eta herritarrek emandako dirua izan da, eta gainontzeko 3.794 euroak errifak salduz lortu dira. Errifak erosi dituztenen artean bi lagunentzako 13 afari zozketatu dituzte. Bestalde, 15 apadrinazio eta Miski Elkarterako bost bazkide berri lortu dituzte. Nahi duenak, oraindik ere bazkide egin edo Peruko haur bat apadrinatzeko aukera dauka.

Gemma Agirregomezkortak kanpainen parte hartu duten guztiei eskerrak luzatu nahi dizkie. Bestalde, aipamen berezia egin nahi die San Lazaro Egoitzako kideei, izan ere asteroko bingoan lortzen duten dirua Miskiri



ematea erabaki baitute. Urritik aurrera Miski Elkarteak kanpainaren bigarren zatia jarriko du martxan.

Zenbaki sarituak eta erreserbakoak: 1.799 (1.500), 944 (1.462), 2.241 (1.499), 1.985 (1.464), 2.139 (3.145), 1.689 (1.751), 2.872 (2.631), 624 (2.839), 3.357 (3.137), 2.016 (2.001), 2.018 (3.695), 3.146 (269), 2.362 (1.690).

## Irailetik abendura arteko Heziketa Iraunkorreko Ikastaroen katalogoa jarri du martxan IMHk

2004. urteko Heziketa Iraunkorra finantzatzeko eredu berria martxan da jada. IMHk alor desberdinetako 130 ikastaro jarri ditu martxan udazken-negu honetarako. Besteak beste, diseinua, mantenu eta muntaia, fabrikazioa, metrologia, segurtasun eta higiena, antolaketa industrialak, kalitatea, marketinga, giza baliabideak, informatika eta e-learning ikastaroak eskainiko dira.

Ikastaro hauekin langileen prestakuntzarako laguntza eskaini nahi die IMHk enpresei, eta bide batez, subentzionatutako ikastaroetan parte hartzera bultzatu nahi ditu. Bestalde, enpresetan euskara sustatzeko asmoarekin,



enpresen beharraren arabera, IMHk ikastaroak euskaraz eskaini ditzake.

Interesatuak [www.imh.es](http://www.imh.es) web gunean aurki dezakete ikastaroari buruzko informazio gehiago.

## Sallobente jaietako txekorraren irabazlea agertu da

Sallobente auzoko jaietan zozketatutako txekorraren zenbaki irabazlea 46.209 izan da. Dagoeneko agertu da zenbaki irabazlea, eta jaso du bere saria. Zorionak!



## Begirale titulua euskaraz

Elgoibarren haurren aisialdian lan egingo duten begiraleak euskaraz formatzeko ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak Debabarrenako gainontzeko Udalekin batera.

Ikastaroa urritik maiatzera bitartean eskainiko da, larunbatetan goizez eta arratsaldean. Bestalde, ikastaro honek bi atal izango ditu, teorikoa eta praktikoa. Bukaerako praktikak egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak ematen duen begirale titulu ofiziala jasoko dute ikasleek.

Ikastaroan parte hartzeko ikasleek hiru baldintza bete beharko dituzte: 18 urte baino gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Debabarrena Eskualdekoa izatea.

Ikastaroaren matrikula prezioa 200 eurokoa izango da eta bi alditan ordaintzeko aukera izango dute ikasleek, erdia ikastaroaren hasieran eta gainontzeko ikastaroaren erdialdera.

Izena emateko epea irailaren 13tik 24ra izango da, beraz, interesa duenak bere datuak eman beharko ditu Elgoibarko Kultur Etxeko 1. solairuan dagoen Euskara Sailean goizez (Tfnua.: 943 74 43 66) edota Euskara Saileko helbide elektronikora mezu bat bidaliz ([euskara@elgoibar.org](mailto:euskara@elgoibar.org)).

## Txankakuaren zozketa

Txankakua Merkatari Elkarteak Nazioarteko Folklore jaialdian 240 euro banatu zituen lau sari desberdinetan. Irabazle bakoitzak 60 euroko txekoa jasoko du, eta Txankakua Elkarteak dendetan gastatu beharko du dirua. Saria jasotzeko epea irailaren 17an bukatuko da. Hauek dira zenbaki irabazleak:

### 5 euroko sarrera

- 184 (ordezkoa 123)
- 347 (ordezkoa 67)

### 3 euroko sarrera

- 078 (ordezkoa 036)
- 238 (ordezkoa 192)

## BARREN astekariaren 500. zenbakia kaleratu dugu gaur

# ZER BEGITANTZEN ZAIZU BARRENEK ORAIN ARTE EGIN DUEN IBILBIDEA?



### MAITANE BERISTAIN

23 urte, ostalaria

Oso ondo. Lasturkoa naiz, eta ez dut BARREN gehiegi irakurtzen, baina ikusi izan dudana gustatu zait. Gainera oso ondo iruditzen zait herriko berri ematea. Herri guztietan egon beharko lirateke honelako aldizkariak.

### NIZETO GARATE

81 urte, jubilatua

Oso ona. Eboluzio handia izan du. Argazkien kalitatea izugarri hobetu da, eta orokorrean oso ondo dago. Denon gustua egin eta dena ondo egitea ez da erraza, baina niri gustatzen zait.



### OIHANA TARRAGUAL

28 urte, kazetaria

500? Zorionak! Diseinua aldatuko naban, irakurlea erakartzeko oso garrantzitsua dalako. Askotan gai berdinak errepikatzen dira, beraz kaleko jendeari emango nioke hitza, zer irakurri nahi duten proposatu dezatela.

### MERCHE QUINTAS

47 urte, tailerreko langilea

Ondo dago, baina elebiduna izatea gustatuko litzaidake. Ez dakit euskaraz eta etxekoek itzultzen dizkidate albisteak. Argazkiak ikustea gustatzen zait baina nire kabuz irakurri ahal izatea nahiko nuke.



### NIEVES LOIOLA

49 urte, administraria

Oso ondo dago, irakurtzeko erraza da. Gai guztiak lantzen dira, eta denok aurkitzen dugu intereseko informazioa. Lehen baserrira berandu iristen zen, baina orain ostiralean bertan iristen da, eta oso gustura jasotzen dugu.

### IÑIGO IPARRAGIRRE

25 urte, ingeniaria

Nik oso gustura irakurtzen dut BARREN, batez ere festa berezien ostean. Argazkiak ikustea asko gustatzen zait, eta albiste gehienak osorik irakurtzen ditut. Herriko kontuez informatzeko oso ondo dago.



Tel: 943 74 10 11

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🚗 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🚗 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Zatuz informazio eske!*



## Nik 500ak ditut!

*Hara irakurle, esku artean duzun BARRENa 500. alea da. Ez da marka makala alajaina! Abenduaren 24an 12 urte beteko dira BARREN izeneko proiektu hau martxan jarri zenetik. Zuetako asko ziu-rrenez, ilusioz hasiko zineten BARRENeke lehen aleak gordetzen. Euskara hutsean argitaratzen zen aldizkaria nobedadea zen herrian eta protagonistak hurbilekoak ziren: herriko aurpegi ezagunak, lagunak edo baita familiakoren bat ere, agian. Nahikoa arrazoi BARRENeke aleak gordetzeko. Gainera, auskalo zenbat irauñ zezakeen inbento hark, ezta?*

*Beno, kontua da ostiralero BARREN etxeko gutunontzian jasotzera ohitzen joan zinetela eta noski! aleak bata bestearen gainean pila-tzen hasi zirenean, etxe gehienetan gertatzen den moduan, paper zaharrek zakarrontzian amaitu zuten. Kristina Garcíaren etxean, ordea, ale guztiak gorde dituzte lehenetik azkeneraino eta gehienak gainera txukun-txukun enkoadernatuta gorde ere. Ez diogu gure buruari meritu gehiegirik ere eman nahi, baina hamarkada batean huts egin gabe kaleratu den ale hauetan murgilduz gero Elgoibar moduko herri txiki batek, eta bertako bizilagunek kontatzea merezi duten gauza asko dituztela konturatuko ginatete.*



## “Herriaren historiaren zati bat da BARREN”

### ■ BARRENearen ale guztiak dituzu gordeta. Non kabitzen zaizkizu, bada?

Hasieran bata bestearen gainean gordetzen nituen, baina lehen urtea pasa zenean zerbait egin beharra zegoela ikusi nuen. Lehen tentazioa botatzearena izaten da baina pena eman zidan, jende ezaguna agertzen baitzen, herriko kontuak... herriaren historiaren zati bat zen azken finean. Beraz, enkoadernatu eta gordetzea erabaki nuen eta lehen 7 urte eta erdiak halaxe gordeak ditut. Gainontzekoak enkoadernatzeko zain ganbaran daude. Enkoadernazioa egin zidaten imprenta itxi egin zuten eta antzerako enkoadernazioa egingo didan baten bila nabil.

### ■ Kolekzioa osatzeko arazorik ez al duzu izan?

Ez larregi. Gutxitan falta izan zait BARRENa buzoian eta hala zenean BARRENeen bertan Ikastolan edo norbaiti eskatuta lortzen nuen.

### ■ Nolako estimazioa du BARRENeke zuen etxean?

Estimatzen dugu eta azkenerako dena irakurtzen dugu, baita merkatu txikiko iragarkiak ere. Nik, adibidez, eskutitzak eta iritziak irakurtzen ditut lehendabizi eta baita erreportaje bereziren bat badago ere. Lau edo bost ale pilatu arte gainontzeko aldizkariekin batera egoten da.

### ■ Izan al zara inoiz BARRENeke protagonista?

Behin agertu nintzen. Farmaziek txandak beste herrietakoekin partekatzea erabaki zuten eta oso gaizki iruditu zitzaidan. BARRENeen gai baten inguruko aldeko eta kontrako iritziak batzen zituen atal bat zegoen eta artikulo bat idatzi nuen.

### ■ Aste berezia izan al zen BARRENeen agertzeagatik?

Jende askok aipatu zidan nik emandako iritziarekin ados zegoela, baina tamalez ez zuen askotarako balio izan.

### ■ Ba al duzue BARREN zaharrak irakurtzeko ohiturarik?

Batzutan bai. Batez ere zalantzak ditugunean nor edo nor BARRENeen agertu zen edo ez eta holakoetan. Gauza kuriosoak ikusten dira gainera, jendea gazteago, ikasle izandakoak, e.a.

### ■ Zer iruditzen zaizu 500. alera iritsi izana?

Askok da. Hasieran denborarekin BARRENa ordaintzen amaituko genuela uste nuen. Horrenbeste urtetan aldizkari bat doan? Ez zela posible uste nuen. Baina, 500.era ere ailegatu da.

*Ia ba beste 500 gordetzeko lanik ere baduzun.*

KRISTINA GARCIA



## BARREN 500 zenbakia 500 ale etxera iristeko banatu egin behar!

*500. alea kaleratu dugu gaur. Ez dira gutxi, ezta? Datorren abenduaren 24an 12 urte beteko ditu Barrenek. Herriko aldizkari honen sorrera gogoan izango duzue gehienok, baina askok ez duzue jakingo noraino iritsi den Barren urte hauetan. Ostiralero Elgoibarko etxeetan sartzearaz gain, bidaia luzeak egiten ditu astero-astero gure aldizkariak.*

*Ikus dezagun bada, nola egiten den Barren aldizkariaren banaketa.*

### BANAKETA DATUAK:

- |                                |                              |
|--------------------------------|------------------------------|
| 1. Buzoietan banatzen direnak: | 2. Postaz bidaltzen direnak: |
| ▶ Elgoibarren: 3.230 ale       | ▶ Euskal Herrira: 220        |
| ▶ Korreoz Elgoibarren: 60      | ▶ Estatu Espainiarrera: 146  |
| ▶ Baserrietan: 189             | ▶ Europara: 10               |
| ▶ Altzolan: 38                 | ▶ Australiara: 1             |
| ▶ Mendaron: 339                | ▶ Asiara: 1                  |



### 1. Inprimategitik BARREnera

Oñatiko Gertu inprimategitik goizeko 11:00ak aldera iristen dira aldizkariak gurera. Banatzaileak kaxak Kultur Etxeko sotoan uzten ditu, eta bertatik egiten da aldizkariaren banaketa.



### 2. Pegatinak jartzea

Eguerdi alderako banatzaileak sotora hurbiltzen hasten dira.

Banaketa zonaldeka antolatuta dago, eta herriko zonalde bakoitzak bere banatzailea dauka. Guztira 10 zonalde desberdin bereizten dira herrian, eta beste banatzaile batek baserrietako banaketa egiten du. Beharbada hauxe da bereziena. Autoa hartu eta baserriz baserri joan aurretik, Altzola eta Mendarora eramaten ditu aldizkariak. Kultur Etxeko sotoan biltzen dira banatzaile guztiak aldizkari bakoitzari bere pegatina jartzeko.




### 3. Kultur Etxeko sototik buzoietara

Pegatinak ipini ostean, banatzaile bakoitzak bere aleak hartu, eta aldizkari bakoitza dagokion buzoian sartzen du.

# Barren

ASTEKARIA

## elkarrizketa



IA 11 URTEAN LANGILE ETA KOLABORATZAILE ASKO PASA DIRA BARREN ALDIZKARITIK ETA JUANITO GOROSTIZA (1926) FINENETAKO BAT IZAN DA, IA 8 URTEKO FIDELTASUNA ESKAINI BAITIO HERRIKO ALDIZKARIARI. 500. ALERA IRITSI GAREN HONETAN ELKARRIZKETATU EZIN APROPOSAGOA IRUDITU ZAIGU. ERRETRATU ZAHARRAK INGURATZEN ETA “NOLA ALDATU DIREN GAUZAK” ATALA OSATZEN LAGUNTZEN DIGU EGUN, BAINA HARTAN EDO HONTAN ARITZEN DEN HERRITARREN BATEN IZENA BEHAR DUGUNEAN EDO LEHENGO KONTUEN BERRI JAKIN NAHI DUGUNEAN BERARENGANA JO OHI DUGU ZUZENEAN, OROIMEN HANDIKO GIZONA BAITA ETA LEHENGO ETA ORAINGO ELGOIBARTAR MORDOA EZAGUTZEN DITUENA.

*Juanito Gorostiza*

“JENDE ASKOK BARREN IREKI ETA LEHEN LANA ERRETRATU ZAHARRARI BEGIRATZEN DIOLA JAKITEA POZGARRIA DA”

## “BARRENe

*KALEKO MUTILA DELA DIO JUANITOK, BAINA BETI ERAKARRI IZAN DU NEKAZAL MUNDU ETA GIROAK. ELGOIBARTAR PETO-PETO HAU HARRO DAGO ERROSARIO KALEAN JAIO IZANAZ, ETA GOGOAN DU ORAINDIK KALEAK DUELA URTE BATZUK ZUEN BIZITASUNAZ. ERROSARION BERTAN EDUKI ZUEN BERE FAMILIAK GOROSTIZA TABERNA MITIKOA LA 40 URTEZ ETA HAREN PAREAN, BERE AITAREN ILE-APAINDEGLA ZEGOEN. BIETAN ARITU ZEN LANEAN JUANITO.*

### ► Gogoan al duzu nolatan hasi zinen BARRENi laguntzen?

Duela 8 urte inguru izan zen. Ainhoa Lodosok eta Jasone Osorok egiten zuten lan garai hartan BARREn eta "Gogoratuz" atalerako nire aitxa zenaren rekordatorioa egiteko eskatu zidaten. Gero, gehiago egiteko eskatu zidaten eta holaxe kateatu nintzen.

### ► Hilda zeuden elgoibartar ezagunen oroimena berreskuratzeko zuten "Gogoratuz" atalarekin hasi zinen, baina beste hainbat gauza egin dituzu BARREnerako, ezta?

Bai halaxe da. Argazki zaharrak lortu, behar izan dutenean BARREneko kazetariari lehengo kontuen berri eman, herriko ohiturak, halako edo holakoren izena edo nondik norakoak lortu, kalean jasotako notizien berri eman, elkarrizketatzea merezi daben elgoibartarren izenak proposatu... eta antzerako errekadu mordua egin izan ditut BARREnerako. Izan ere, uste baino lan gehiago edukitzen du rebistiak eta uste baino nekosoagoa izaten da. Betiere musutruk eginiko lana izan da, baina herriari mesede egiteko intentzioarekin, jakina.

### ► Zer moduz moldatu zara euskaraz idazten?

Euskaraz idazteko ez daukat gaurko teknikarik, lehengo legean idazten dot, ikasi naban moduan, alegia. Ulertzeko modukoa da, baina ez ditu gaurko arauak betetzen eta BARREnekoek moldatu izan dituzte nire idatziak. Praktikatuta ahala gero eta hobeto moldatzen joan naiz eta ondo etorri zait, ez baineukan euskaraz idazteko ohitura askorik.

### ► Ba al daki jendeak BARREni laguntzen diozula?

Ezagutuko ez naute ba! Zenbaterik esan ote dit BARREneko jefia naizela. Makina bati esaten diodan moduan, jefia ez baina bai borondatezko errekadistia.


### ► Hainbat erretratu zahar biltzen lagundu duzu. Zer izaten da zailena?

Askotan aurpegia jarri beharra izaten da nekosoena. Behin eta berriz eskatu behar dira gauzak, jendea kontentzitzen saiatu eta gerta liteke pelma xamarra suertatzea. Batzuk esan ere egiten didate, baina ez dezatela pentsa borondate txarrakin egiten dugunik, BARREni eta herrixari laguntzearen da. Norberarentzat ere ernagarria da behin eta berriz atzetik ibili beharra, baina neri ez dia horrenbeste ardura. Gainera, pozgarria da jende askok BARREni ireki eta lehen lana erretratu zaharrari begiratzea izaten dela aipatzen didanean.

### ► Zer iruditzen zaizu BARREN 500. alera ailegatu izana?

Hasieran, eta beste jende askok uste zaban moduan, horren urrun ez zela iritsiko pentsatzen naban nik ere. Meritu handia duela iruditzen zait.

# datezko errekadistia izan naiz”



## “IKUSGARRIA ZEN KIROLAREN GAINEAN ZENBAT EZTABAIDA ETA BERBA SORTZEN ZEN GURE BARRA INGURUAN”

► **Lehengo eta oraingo elgoibartar mordoia ezagutzen duzu? Nondik datorkizu jendea ezagutzeko erraztasun hau?**

Herriko kristaua zela naizen eta dauzkan urteekin jende mordoia ezagutzeko aukera izan dot eta edozer datu edo lehengo notiziak behar direnean aukera gehiago ditut jakiteko. Bizitzan zehar izan ditudan lanek ere asko lagundu didate.

► **Zertan egin izan duzu lan?**

Gaztetan monagilo izandakoa naiz eta gero aitxa zenaren pelukeria aritu nintzen urte batzutan. Gorostiza tabernan parean zegoen eta hiru anaiek laguntzen genion aitari. Gizonezkoentzako bakarrik zen eta ilea apaintzeaz gain bizarra ere mozten genuen labanaz. Kontu asko entzuten ziren han eta

nahigabe ere gogoan hartzen diren arren, nik beti ipini izan dot interesa. Gorostizatarrok eduki genuen tabernan ere berdin gertatzen zen eta baita tailerlean ere, Sigman eta Danobaten lan egindakoa bainaiz eta jende asko ezagutu nuen. Une batzutan tailerlean tabernan eta pelukeria aldi berean ibili nintzen. Lau anaia ginenez tabernan txandatu ibiltzen ginen.

► **Jende askok Gorostiza tabernatik ezagutuko zaitu, baina ezagutu ez zutenentzat azaldu egiguzu nolakoa zen, zer giro bizi zen bertan...**

Ia 40 urtean eduki zuen nire familiak Gorostiza taberna Errosario kalean. Gaurko taberna eta jatetxeekin alderatuz oso ezberdina zen. Egungo taberna bati eskatzen zaizkion baldintza eta ezaugarri asko falta zitzaizkion arren, giro bereziko taberna zen, lehengo erako taberna, popularra. Esaterako, janari guztia tradizionala zen eta karta jokoak egunero izaten ziren, orduan jendea ez zen kanpora irteten eta diru guztiak tabernan lagatzen zituzten. Urte onak izan ziren tabernan aritzeko, baina lana majo eginda. Faltan botatzen dudan beste gauza bat jendeak zuen kanturako zaletasuna da, zenbat kantu pila kantatzen zen! baita aste burugorrian ere.

► **Gorostiza tabernako berezitasuna paretean jarrita egoten ziren kirol emaitzez jositako arbelak ziren, ezta?**

Bai, era guztietako kiroleko emaitzak jartzen genituen paretean zintzilik zeuden arbeletan. Pilota partiduetako trabesak ere jartzen genituen. Urtañen garaian baita boxeokoak ere. Entzun dudan handiena batek bota zidan, “Urtainek lau asaltotan baietz aurkaria hil”. Ez gendun onartu, noski. Orduan ez zegoen gaur dagoen erraztasunik emaitzak jakiteko eta jendeak gauzak gertatu ahala jakin nahi izaten dituenek, Gorostizatik pa-

satu bihar zaben notizia preskuak nahi izanez gero. Anaiok belarrria irratian sartuta ibiltzen ginen emaitzen berri izateko. Eladio anaia zen belarririk onena zeukana eta entzun ahala denak hartzen zituen gogoan. Ikusgarria zen kirolaren gainean zenbat eztabaida eta berba sortzen ziren gure barra inguruan.

► **Errosario kaleak beste bizitasun bat izango zuen garai hartan.**

Bai. Pentsa, 10 taberna zituen: Jai-Alai, Amistad, Untzon, Aitz Bizkar, Bar Luzio, Katiuska, Bar Zazpi, Gabi eta Gorostiza liburudenda dagoen tokian ere bazegoen bat. Bazkal ostean fundizioa ematen zuen Errosario kaleak horrenbeste fariak pururen keagatik. Eguerdietako txikiteoa ere autozerbitzu moduan antolatzen genuen. Sirena entzun orduko ateratzen ziren langileak tailerretatik eta bazkal ordu bitartean aritzen ziren txikiteoan. Guk barra gainean jartzen genituen prest basoerdi guztiak. Oso kale alaia zen, behe partean ez baitzegoen ezer. San Bartolome jaietan txarridunarraino joan eta ez zen ezer egoten.

► **Kirolak eta kirolari elgoibartarrak jarraitzea gustuko duzu, ezta?**

Bai era guztietako kirolak ditut gogoko: futbola, pilota, atletismoa, boxeoa, herri kirolak, etab. Beti gustatu izan zait gauzak zuzenean ikustea. Bartzelonako Olinpiadetan ere izan nintzen atletismoa jarraitzen eta pilota modalitate ia guztietako finalak ikusi izan ditut. Kirolean nabarmendu diren elgoibartarrak ere jarraitu izan ditugu eta ez dira gutxi izan, maila handiko kirolari asko izan dituen herria baita txikia izanagatik. Gure aurretik ere Espainiako txapeldun bat baino gehiago atera da Elgoibartik. Liburu bat idazteko adina edukiko nuke ikusi eta entzun ditudan guztiekin; zelako esaearak, nolako burlak, kantuak, eztabaidak...



*Deba (1935)*



*San Bartolome jaiak (1943)*



*Kintoen despedida (1945)*



*Elgoibar, San Bartolome jaiak (1946)*



*Familia (1953)*

# Errepasoa



*Bartzelonan eztei bidaia (1959)*



*Gure Bideko zuzendaritza (1969)*



*Teiden emaztearekin (1981)*



*Ezkerrean, Jerusalem (1984)  
Erdian, Gorostiza tabernan lanean  
Errosario kaleko jaietan (1992)  
Eskubian, Errosario kaleko jaiak*



## “DOITZAILE MEKANIKOA” IKASTAROA

langabetuei zuzendua

(%100 SUBENTZIONATUA)

### INFORMAZIOA:

**Makina Erremintaren  
Institutua**  
Azkue Auzoa, 1 - Elgoibar  
Tel.: 943 74 82 70 - 943 74 41 32  
(Nora Ramón)  
Faxa: 943 74 41 53  
nora@imh.es - www.imh.es

**Bulegoko ordutegia:**  
08:00-13:00 / 14:30-17:30

### Edukinak:

- Planoen interpretazioa
- Metrologia
- Mekanizazio konbentzionala
- Muntai-a-dotzea
- Praktika enpreetan ikastaroa amaitu ondoren

**Orduak:** 409

**Datak:** Hasiera 2004ko irailaren 15ean. Amaiera abenduaren 15ean

Izena emateko azken eguna: irailak 13



### ESKERTZA

2004ko abuztuaren 5ean, 86 urte zituela hil zen,  
**AGUSTINA ARRIOLA IRIONDO**ren sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### MEZA

2004ko abuztuaren 10ean, 81 urte zituela hil zen  
**AGUSTIN BRAGADO RODRIGUEZ**en oroimenez  
**MEZA** izango da San Bartolome Parrokian  
larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 19:30ean.  
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



### ESKERTZA

2004ko irailaren 6an, 82 urte zituela hil zen,  
**JOSE CRUCELEGUI AROCENA**  
"KATALOTZA" trikitilariaren sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**Igor Palomino**, kultura zinegotzia

## "Fitoren kontzertuan jende gehiago espero genuen"

*2004ko San Bartolome jaiak amaitu ziren eta jadanik eguneroko bizimoduaren murgilduta zaudetenontzat pasatako kontuak direla irudituko zai-zue, baina orain, hotzean, balorazioak egiteko une aproposa da. Igor Palomino, kultura zinegotziarengana jo dugu jaien errepasoa egin diezagun. 200.000 euroko aurrekontua izan dute aurtengo jaiak eta lehen egunetan jende gutxiago ibili bada ere udal arduradunak gustura daude jaiak izan duten bilakaerarekin. Jadanik hasi dira datorren urteko jaietan pentsatzen, baina herritarrek ere proposamenak egiteko aukera dutela gogora arazi digu Igorrek.*



### ■ Zein da Udaleko kultura zinegotziak aurtengo jaien gainean egiten duen balorazio orokorra?

Balorazioa oso baikorra da, jaiak ondo joan direla uste dugu, arazorik gabe. Hainbat ekintza izan dira aukeran eta jendeak ondo pasatzeko aukera izan du.

### ■ Jaietan jende gutxiago ibili den sententziorik izan al duzue?

Bai, hala da, eta tabernari batzuekin berba egin ostean ere hala ziurtatu digute. Lehen lau egunetan igarri da jende eskasia. Daukagun informazioaren arabera, ordea, ez da Elgoibarko dagokion joera bakarrik, Deba, Ondarroa eta Bilbon ere sententzia eta tendentzia bera nabaritu dute. Zergatia ez dakit. Elgoibarko kontua bakarrik izango balitz, jaiak ondo planteatu ote genituen hausnartu beharko genuke, baina oraingoz ez dugu beharrik ikusi.

### ■ Aurtengo berrikuntzen artean, Ikastolako kontzertuetarako gunea egon da. Zer moduz ateratu da?

Gustura gaude. Egin nahi genituen ekintzetarako lekuri egokiena Ikastola zela ondorioztatu genuen. Jendearen erantzunari dagokionez, Arima Beltza eta Fitok eskaini zuten kontzertuan jende gehiago espero genuen (2.000 lagun inguru joan ziren), baina herrian ere ez zebilen jende larregi. Gazteen Eguneko kontzertuak ere ikusle asko izan zituen. Kontzertuetarako gune

aldaketa honen inguruan kexa batzuk ere jaso ditugu herritarrengandik, batik batik bezpera eguneko kontzertua Plaza Handian ez jartzeagatik, baina Plazak ez zituen behar ziren baldintzak betetzen. Besteak beste, Fitok bere kontzertuetan sarrera ordaindua izan dadila behartzen du. Azken bi urteetan doan egin duen kontzertu bakarra Bilboko izan zen eta DVD bat grabatzea nahi zuelako.

### ■ Nolatan sortu zen Fito ekartzeko aukera?

Zinegotzi moduan hasi nintzenez argi neukan berrikuntza batzuk sartu nahi nituela. Elgoibarko jaiak kontzertu potente bat merezi zutelako uste nuen eta urtarrean Fito sinatzeko aukera izan nuen. Nahiko kontzertu hotza eskaini zuen, baina bi ordu eta 20 minutuko kontzertua izan zen, egun inork egiten ez duena. Ni neu gusturago geratu nintzen Arima Beltzarekin.

### ■ Zezentxo eta ponyak ere Xixilionera aldatu zenituzten?

Bi urtean behin egiten den Euskadiko Limusin Txapelketarekin Plaza Txikia gutziz hipotekatuta geratzen zen. Plaza Txikiko zezentxo eta ponyak eta futbol partiduek onarpen handia dutela jakinik ezin genituen kendu eta kokapen finko berri bat topatu diegu. Herri erditik 100 metrora horrelako leku bat izatea luxu bat dela uste dugu.

### ■ Barrakak itzuliko al dira Elgoibarrera?

Gure asmoa barrakak etor daitezela da eta hurrengo urterako ere ahalegina egingo dugu, nahiz eta oraindik ez dakigun non kokatuko ditugun. Orain artean ez diegu barrakeroei ez etortzeko esan, eskaini genien kokapenarekin ez zeudelako ados laga zioten etortzeari.

### ■ Zer gertatzen da 15:00etako txupinazo tradizionalarekin?

Udalarentzat eta elgoibartarrentzat txupinazo ofiziala 13:00etako da. Denontzako ordu egokia dela iruditzen zaigu eta ezin ditugu herrian hiru txupinazo ezberdin eduki. Norbaitek bere kasa txupinazo bat bota nahi baldin badu, edozein arrazoitarteko, Udalak ez dio ezezikorik emango, baina indarrean dagoen araudia betetzea exijitu behar dio. Joko eta ikuskizun legedia oso zorrotza da.

Guk geuk 13:00etako txupinazoa botatzeko, hainbat segurtasun arau bete behar ditugu: 300 metroko segurtasun eremua, tenporizadoredun metxak, traka pizteko urruneko kontrol agindua, erresponzabilitate zibileko segurua, e.a. 15:00etako txupinazoak ez ditu arauok betetzen, eta hau Elgoibarko herritarren segurtasunaren kalterako denez, Udalak ezin die baimenik eman. Horixe izan da aurtun gertatu dena.

## Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari eskainitako lau filmetako zikloa eskainiko du Ongarri Zine Klubak

Irailaren 16tik 30era bitartean ikusi ahal izango dira filmak

Azken hiru urteetan egin izan duten moduan, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari eskainitako astea edo zikloa antolatu du Ongarri Zine Klubak. Irailaren 16tik 30era bitartean iazko edizioan Donostian eskaini zituzten lau pelikularik esanguratsuenak ikusi ahal izango dituzte zinemazale elgoibartarrek. Pantailaraten lehena Victor Erice zinegile euskaldunaren “El espíritu de la colmena” izango da irailaren 16an, eguenean. 1973. urtean Urrezko Maskorra irabazi zuen pelikula honek Donostian eta iaz, 30 urte geroago, aktoreak eta zuzendaria omendu nahi izan zituzten zinemaldiko antolatzaileek. Filmearen kopia berritua aurkeztu zuten eta 70. hamarkadako film mitikoa gaur egin izan balitz moduan ikusteko aukera izan zuten ikusleek. Elgoibarren ere filma berritua ikusteko aukera izango da.

### Pelikularik sarituenak

“Te doy mis ojos” Iciar Bollainek emakumeek jasaten dituzten tratu txarren inguruan egin zuen filma garratz eta



gordinarekin batera, zinemaldiko bi pelikula sarituenetakoak eta arrakastatsuenak ere eskainiko ditu Ongarrik: “Memories of Murder” (asteartea 21/osteguna 23) eta “The Station Agent”(asteazkena 22/barikua 24). Lehena, Zuzendari Onenaren Maskorra eta Zuzendari Berriei eskainitako saria irabazi zituen filma hego korearra da. Bonj Joon zuzendariak hiltzaile baten lorratza jarraitu ezin duten polizi bikote baten erretratu bitxia egiten du. Bigarren filmek

Epaimahaiaren Sari Nagusia jaso zuen. Bertan, trenbideekin txundituta dagoen nano baten bizimodua kontatzen zaigu. Tren geltoki abandonatu bat zaintzen hasiko da eta bere mundua haren bueltan egituratuko du. Azken pelikula, “Les mans buides” espainiarra izango da irailaren 30ean. Cannes-eko Zinemaldian aurkeztu zen arren, baina Donostiako Horizontes Latinos Sailean ere bota zuten. Pelikula guztiak 22:15ean hasiko dira.



### I. URTEURRENA

2003ko irailaren 8an, 81 urte zituela hil zen

**LUIS ETXANIZ OSORO "MUNUANDI"**ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da San Bartolome Parrokian  
larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 19:00etan.  
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



### I. URTEURRENA

2003ko irailaren 6an, 78 urte zituela hil zen

**CLARA BERISTAIN ALDALURE**ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da San Bartolome Parrokian  
larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 19:00etan.  
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



# UZTAILA/ABUZZTUA

2004-IX-10

## JAIOTAKOAK

Egoitz Rodriguez  
Arambarri,  
abuztuak 20,  
Pedro eta Aitziber

Macarena Patricia  
De La Paz Cabello,  
uztailak 28,  
Domingo eta Patricia

Ane Rodriguez  
Esnaola,  
uztailak 21,  
Jose Maria eta Leire


Sara Parada Alvarez,  
abuztuak 22,  
Miguel Angel eta  
Guadalupe

Gorka Arce  
Moreña,  
uztailak 8,  
Iñaki eta Pili

Andoni Urtiaga  
Mateos,  
uztailak 22,  
Roberto eta Rosa



Oihana  
Agirregomezkorta,  
ekainak 30,  
Nati eta Igor



Luken Beitia  
Agirregomezkorta,  
ekainak 30,  
Iker eta Onintza



Ekain Melica  
Urbiola,  
uztailak 1,  
Guillermo eta Leire



Galder Melica  
Urbiola,  
uztailak 1,  
Guillermo eta Leire



Maria Mugerza  
Guerra,  
uztailak 14,  
Ignacio eta M<sup>o</sup>Carmen



Maddi Arriola  
Gurrutxaga,  
uztailak 27,  
Patxi eta Nekane



Ohiana Lariz Espinosa,  
uztailak 31,  
Gerardo eta Paky



Irati Urbiola Pinilla,  
abuztuak 2,  
Javi eta Neli



Nora Andres Migales,  
abuztuak 12,  
Alexander eta Alicia



Irati Elia Muñoz,  
abuztuak 17,  
Asier eta Maria



Nora Rogel Maroto,  
abuztuak 16,  
Txomin eta Maria  
Victoria



Maialen Andres  
Fernandez,  
abuztuak 26, Eduardo  
eta M<sup>o</sup> Pilar



Angel Moreno  
Fernandez,  
abuztuak 27,  
Antonio eta M<sup>o</sup> Jose



Adrian Charles  
Oñederra,  
abuztuak 31,  
Nicolas eta Idurre

## HILDAKOAK

M<sup>a</sup> Angeles Egaña Agirrezabala,  
82 urte, uztailak 1

Maria Reyes Gonzalez,  
96 urte, uztailak 5

Felisa Arrieta Irazabalbeitia,  
81 urte, uztailak 10

Juanita Gabilondo Mugerza,  
74 urte, uztailak 11

Maria Carbayo,  
59 urte, uztailak 14

Jose Ramon Urresti,  
41 urte, uztailak 21

Felisa Morales Gordo,  
71 urte, uztailak 21

Jose Antonio Alberdi Eguren,  
85 urte, abuztuak 2

Segunda Perez,  
83 urte, abuztuak 3

Agustina Arriola,  
86 urte, abuztuak 5

Antonio Astigarraga  
79 urte, abuztuak 9

Agustin Bragado Rodriguez,  
81 urte, abuztuak 10

Eduardo Isidro Revilla,  
81 urte, abuztuak 12

Angelita Aramberri,  
90 urte, abuztuak 18

Felisa Osoro Arana,  
81 urte, abuztuak 18

Faustina Mugerza Bernedo,  
76 urte, abuztuak 22

Luisa Alberdi,  
83 urte, abuztuak 29

Bitxori Barrenechea,  
81 urte, abuztuak 27

Jose Azpiazu,  
78 urte, abuztuak 30

## ETXEBERRIA

### Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA

KUTXAK ·  
TRASLADOAK  
·KOROAK

NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.

Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.



Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56  
(Mobila) 608 77 07 01

## Esperientziaz betetako motxila Santiago Bidetik bueltan

Maria Garciak eta Manuel Quintanak 22 egunetan egin dute bidea

**A**urten Xacobeo urtea izanik, milaka izan dira Santiago Bidea egin dutenak, beste hainbeste arrazoik bultzatuta. Aste honetan jakin dugu Asturiaseko Printzeak banatzen dituen sarietako bat jaso duela, Elkartasun alorrean alegia. Hortaz, une aproposa iruditu zaigu abuztuan Santiago bidea egin duten bi herritarren esperientzia azaltzeko. Maria Garcia eta Manuel Quintanak abuztuaren 2tik 24ra bitartean egin dute bidea Orreagatik abiatuta. Mariak kontatu dizkigu nondik-norakoak eta liluratuta itzuli da emakume alai hau. Iaz Galizia aldean izan ginen eta Santua bisitatu eta besarkatzerakoan nire senarrak hurrengo urtera arte esanez agurtu zuen, oinez itzuliko zela ziurtatuz”. Esan eta egin. Esperientzia bat bizitzea izan dela euren motibazioa aitortu digute, baina Bideak ba omen du zerbait espiritual, “zaila da azaltzen eta ulertzeko bidea egin behar da”.

### Bidaia didaktikoa

Jende askorekin egin dute topo: taldeka, bikoteka edo bakarka bidaiatzen zutenak, baina bidea bakarrik egiten duten emakume mordoak deitu die atenzioa. Gehien gustatu zaiena Orreagatik Santiagora aurki daitezkeen paisaia mota ezberdinak dira, “bakoitza bere edertasun bereziarekin,



egunsentiak, eliza eta monumentuak eta barruan dituzten altxorrek, baina batez ere herrietako jendearekin berba egitea eta noski, bidean aurkitzen duzun jendea, era guztietako jendea, baina tratua oso atsegina da guztiekin. Venezia Teologia irakasle bat ezagutu genuen eta bi apaiz gazte ere lagun egin genituen. Hain justu Santiagora iritsi ginenean, San Bartolome egunean, eurek lagundu zioten Gotzainari meza ematen. Beraiek azaldu zizkiguten Xacobeoaren nondik norakoak, zer esanahi zeukan Santiago Bideak beraien ikuspuntutik eta zer baldintza bete behar



ziren Jubileoa lortzeko. Gauza asko ikasi omen dituzte ezagutu dituzten pertsonen esker, “atentzioa deitu dit jendea zeinen jantzia zegoen kulturalki, batez ere gazteak, ia denak baitziren lizentziatuak eta denengandik ikasteko aukera izan dut. Aurrez ezagututako jendearekin elkartzea ere oso hunkigarria zen eta aspaldiko lagunak izango balira moduan besarkatzen ginen beraiekin”. Makina bat bitxikeria kontatuko lizkiguke Mariak, egun bakoitzeko bat gutxienez eta liburu bat idazteko adina gertakizun eta oroitzapen on laga baitizkio Santiago Bideak.

## Valderejo eta Herran arteko travesia irailaren 26an



**U**dako oporren ostean Morkaiko Mendizale Elkartek mendi irteerak antolatzeari ekin dio berriro. Lehen irteera Araba aldera izango da irailaren 26an, domekan, Valderejo eta Herran bitarteko parajeak ezagutzera, hain zuzen ere. Ibilbideak 25 kilometro izango ditu eta 300 metroko desnibela. Morkaikotik adierazi digutenez bost ordutan egiteko moduko mendi itzulia da eta aldapa handirik gabeko paraje ederra omen da. Autobusa goizeko 7:30ean aterako da Plaza Handitik eta itzulera arratsaldeko 19:30ak inguruan izango da. Bazkideek 5

euro ordaindu beharko dituzte eta Morkaikoko bazkide ez direnek, berriz, 8 euro.

Euskal Herriko parke natural ederrenetako bat ikusteko aukera izango dute astelehenetik (irailak 13) aurrera izena ematen dutenek. Lalastra herritik abiatuko dira mendizaleak eta hasierako aldapatxoa igo ostean, parkeari bira emango diote. Ondoren, Ribera herri abandonatura iritsiko dira eta handik, Puren errekek sortu duen kanoian barrena, Burgosen dagoen Herran herrian amaituko dute ibilaldia.

## Lana

### ESKAERA

- ♦ Administraria eskaintzen da. Ez dago kontratu beharrik. ☎ 627 831 529
- ♦ Pertsona arduratsua egun erdiz lan egiteko prest. ☎ 678 070 546
- ♦ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 699 60 91 90
- ♦ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. Goizeko 10:30etik 17:30era eta asteburuetan. ☎ 699 60 91 90
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 943 75 24 31/600 89 06 41
- ♦ Gizona eraikuntzan, pinturan edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ 610 69 95 32
- ♦ Emakumea etxeak, tabernak edota elkarteak garbitzeko prest. ☎ 639 88 20 04
- ♦ Gizona eraikuntzan, pinturan edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ 662 078 352
- ♦ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, astebururak barne. ☎ 626 91 49 04
- ♦ Emakumea adinekoak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernetan ontziak garbitzeko prest. ☎ 660 91 94 23

- ♦ Emakumea garbiketa lanetarako prest. ☎ 943 74 22 01/652 71 59 08 (Araceli)
- ♦ Emakumea umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ 943 74 35 05
- ♦ Bi neska garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 660 69 53 03 (Marta)
- ♦ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. ☎ 943 17 28 96

### ESKAINZA

- ♦ Kamareroa behar da. ☎ 943 74 10 12
- ♦ Kamareroa behar da. ☎ 943 030 150
- ♦ Mutila behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. ☎ 670 65 49 21
- ♦ Asteburuetarako sukaldaria behar da. ☎ 670 25 04 29
- ♦ Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. ☎ 680 669 137
- ♦ Kamareroa behar da astean zehar lan egiteko. ☎ 652 77 82 10 / 652 77 82 60
- ♦ Mapfrek, Deba Behe bailaran duen sarea osatzeko komertzialak behar ditu. Formazioa eta babes eskaintzen dizuegu. Bidali zure kurrikuluma eta telefonoa MAPFREra, ez-tazio kalea 11-13, 20600 EIBAR.

## Lokalak

- ♦ Gazte koadrila batek lokala alokatuko luke. Ez dadila oso garestia izan. ☎ 660 349 723

## Bestelakoak

- ♦ Hamster bat oparitzen da. ☎ 943 74 33 59 (Iosu)
- ♦ Bi bizikleta oparitzen dira, mendikoa eta paseokoa. ☎ 943 74 18 59

## Etxebizitzak

- ♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldaria, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 635 22 31 42
- ♦ Pisua salgai erdialdean. 20 milioi pezeta. Altzariekin, berritua. 2 logela, aire egokitu, berogailuak, dena kanpora begira. ☎ 665 70 13 70
- ♦ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. ☎ 627 603 437
- ♦ Etxea osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 615 76 72 44
- ♦ Pisua salgai Eibarren. Karmen kalean, igogailuarekin. ☎ 615 71 99 01 (Angelita)
- ♦ Pisua salgai Mendaron. Berria. Garaje eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. ☎ 696 305 317/943 74 15 21
- ♦ Pisua salgai Mendaron. Berria. Altzariekin. 3 logela, sukalde-jangela, komuna eta trastero handia. ☎ 609 96 53 95/650 12 96 05
- ♦ Etxea alokatzen da Santa ana kalean. ☎ 660 042 159
- ♦ Pisua alokatzen da Deban iraitetik ekainera. ☎ 943 74 13 39
- ♦ Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldaria, trasteroa. Aukeran garajea trastero handiarekin. ☎ 943 74 41 85
- ♦ Pisua salgai. Bi logela. Altzariekin. 75m<sup>2</sup> erabilgarriak. ☎ 678 627 397
- ♦ Logela bat alokatzen da Sigman. ☎ 659 62 73 56
- ♦ Logela bat alokatzen da. ☎ 943 74 18 81

## Salerosketak

- ♦ Opel Kadet 1.400 salgai. Ekonomikoa. Egoera onean. ☎ 943 74 11 30
- ♦ Mercedes 190 25D salgai. Aire egokitua. Egoera onean. Merkea. 175.000km. ☎ 690 03 57 50
- ♦ Opel Corsa autoa salgai. SS-AH. Egoera onean. 1.350 euro. ☎ 943 74 21 84
- ♦ Bikientzako kunak, Prenatal markako kotxe sila, eta autorako aulkia salgai. Koltxoak, edredoiak, eta zakuak opari. ☎ 635 75 42 90
- ♦ Ehiza txakurra, 5 urteko Brako alemana salgai. Galeperretan oso ona, oilagorretan ere ibilia. ☎ 686 48 10 68
- ♦ Mendiko Grisley bizikleta salgai. Mendirako eta errepiderako gurpilak, eta bi kasko. ☎ 609 04 08 72 (Imanol)

## Partikularrak

- ♦ Kontabilitate eta finantza partikularrak jasoko nituzke udan. ☎ 650 624 188
- ♦ Biologian lizentziatuak irakasgai denen partikularrak ematen ditu, 2. ESO-ra arte. ☎ 637 12 30 59

## Garajeak

- ♦ Urasandin 27m<sup>2</sup>ko garaje itxia salgai. ☎ 659 14 12 32
- ♦ Madalako etxe berrien azpian garajea eta trasteroa alokatzen dira. ☎ 605 77 34 53 (21:00etatik aurrera)
- ♦ Garaje irekia alokatzen da San Roken. ☎ 653 73 94 67

## ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

### HAUR ETA GAZTEEN AISIALDIAN LAN EGITEKO TEKNIKARIAK BEHAR DIRA

#### AURREIKUSTEN DIREN PROIEKTUAK:

- . Haurrentzako aisialdi proiektua.
- . Gazte Lokala eta gaztetxoentzako aisialdi proiektua.

#### ESKATZEN DA:

- . Aisialdia ezagutu eta sektorean eskarmentua.
- . Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna.
- . Euskara maila ona (ahoz eta idatziz).

**EGINBEHARRA:** Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eta Elgoibarko Udalak HAUR eta GAZTETXOENTZAKO prestatu nahi duten AISIALDI PROIEKTUAN teknikari eta eragile lanak betetzea.

#### BALORATUKO DA:

- . Aisialdiko zuzendari titulua izatea. Sektorearekin lotutako bestelako titulazioa.
- . Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- . Elgoibartarra edo ingurukoa izatea.

**ESKAINTZEN DA:** Egun osoko kontratua.

Curriculumak entregatzeko: **ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte, Ubitarte 4, beheka 20870 ELGOIBAR**

Tel: 943 74 16 26 (Imanol) • E-posta: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)

Izena emateko azken eguna: irailak 13, astelehena.



♦ Zorionak **Mikel**, arrebaxikia izan duzulako.



♦ Zorionak **Beñat**, abuztuaren 15ean, 3 urte bete zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Adrian**, abuztuaren 27an, 3 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Eñaut**, zure lehengusina Amaia-ren partez.



♦ Zorionak **sorgintxo**, abuztuaren 31n, 3 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Garazi**, hilaren 11n, 9 urte beteko dituzulako. Chirstian eta familiakoen partez. Ondo pasa!



♦ Zorionak **Naroa Almenarari**, hilaren 9an, 12 urte bete zituelako. Zorionak Rosa ere. Egun ona pasa!



♦ Zorionak **Nerea Perez**, abuztuaren 1ean, 8 urte egin zenituelako. Iosu, Ester eta Mariaren partez.



♦ Zorionak **Ainara Garcia**, abuztuaren 9an urtebete egin zenuelako. Gurasoen eta familiakoen partez.



♦ Zorionak **Iban Rogel**, abuztuaren 6an, 6 urte egin zenituelako. Gurasoen eta arrebaren partez.



♦ Zorionak **Haritz Ayala**, hilaren 11n, 17 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta anaiaren partez. Ondo pasaguna!



♦ Zorionak **Ane Perez**, abuztuaren 23an, 14 urte egin zenituelako. Iosu, Ester eta Mariaren partez.



♦ Zorionak **Janire**, hilaren 4an, urtebete egin zenuelako. Familiakoen eta bereziki, Ion eta Maitaneren partez. Muxu handi bat.



♦ 4 urte jadanik! Zurekin egunak luzeak baina urteak motz. Zorionak eta muxu pottolo bat. Etxekoak!"



♦ Zorionak **Andoni**, abuztuaren 21ean, 4 urte bete zenituelako. Etxekoen eta amaren partez.



♦ Zorionak **Ainhoa Mugerza**, hilaren 3an, 7 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki anai Unairen partez.



♦ Zorionak **Mikel Garmendia**, abuztuaren 19an, 5 urte egin zenituelako. Asier, aita, ama eta etxekoen partez.



♦ Zorionak **Aitor**, asteartean 10 urte bete zenituelako. Etxeko eta bereziki, Maier, Ainhoa, Julen eta Zorioneren partez. Muxu bat.



♦ Zorionak **Gorane** gure kantariari, abuztuaren 28an, 9 urte bete zenituelako. Gurasoen, izebaren eta zure lehengusu Ainhoa eta Albertoren partez.



♦ Zorionak **Julen**, irailaren 4an, 5 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, arreba Mainerren partez.



♦ Zorionak **Saioa** eta **Irati**, irailaren 2an eta 7an, 5 eta 2 urte egin zenituztelako. Gurasoen eta familiakoen partez.



♦ **Imanol** eta **Pepi**, 50 urtean elkarren ondoan beti. Etxeko danon partez, zorionak bihotz-bihotzez.



♦ Zorionak **Ainhoa**, **Mikel** eta **Marina**, 7 eta 2 urte egin zenituztelako. Gurasoen eta amaren partez.

♦ Zorionak **Borja Ortiz de Urbinari** gitarran apuntatzea lortu duzulako. Animo!

♦ 35 urte... zuek bai meritul! zorionak!

## Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
10 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria	<b>ESCALA</b> , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
11 Etxeberria (Errosario kalean)	Fernandez	<b>FERNANDEZ</b> , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
<b>12</b> Fernandez	Fernandez	<b>ZABALETA</b> , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
13 Yudego	Yudego	
14 Zabaleta	Zabaleta	
15 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	
16 Fernandez	Fernandez	<b>OKINDEGIA</b>
17 Yudego	Yudego	<b>12 igandea</b> Eizagirre

## HITZALDIAK

### Osasuntsu hirugarren adinean

Kutxak hirugarren adineko pertsoneri zuzenduriko hitzaldia antolatu du. Komunikazioa eta adiskidetasuna funtsezko oinarriak direla bizimodu osasuntsu baterako izango da hitzaldiaren gai nagusia. Irailaren 15ean, eguaztenean, izango da hitzaldia San Lazaro egoitzan eta Jose Maria Garcia adituak eskainiko du. Elikadura egokiaren onurak, ariketa fisikoa egiteak dakartzan mesedeak eta aisialdia igarotzeko modurik egokienak, higiena, adimena lantzeko ariketak, bikote arteko komunikazioa eta sexualitatea aztertuko ditu, besteak beste.

## KONTZERTUAK

### Arima Beltza Artean

Arima Beltza blues rock talde elgoibartarrak Artean eskainiko du kontzertua gaur iluntzean (irailak 10). Hortaz, eta talde elgoibartarraren doinuez herriko jaietan ezin gozatu izan bazenuten Arteako plazan duzue aukera gaur 22:00etatik aurrera. Elgoibartarrekin batera Rafa Rueda eta "Ene Bada" arituko dira.

## ERAKUSKETAK

### Margo lehiaketako erakusketa

Mendaroko Udalak margo lehiaketako koadroekin osatutako erakusketa antolatu du. Arno-Otaerre aretoan (udaletxean) izango da ikusgai asteburu honetan. Barixakuan 18:30etik 20:30era izango da ordutegia. Zapatuan 17:00etatik 19:00etara izango da irekita eta domekan 12:00etatik 14:00etara.

## 10 BARIXAKUA

### 17:30 KIRIBILKA HAUR ETA GURASOENTZAKO PROGRAMA

Plaza Handian  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

### 18:30 ODOL EMATEA

Anbulategian  
Antolatzailea: Elgoibarko Odol emaila  
Elkarte

## 15 EGUAZTENA

### 17:00 HITZALDIA

Gaia: nola mantendu osasuntsu hirugarren adinean  
Hizlaria: Jose Maria Garcia  
San Lazaro Egoitzan  
Antolatzailea: Kutxa

ZINE  
kluba



## "El espíritu de la Colmena"

Zuzendaria: Victor Erice.

Antzezleak: Fernando Fernan Gomez, Teresa Gimpera, Ana Torrent.

Pelikula poetiko eta politiko eder hau espainiar zinemarik onenaren historiaren partaide da, eta letra larriz, gainera. 1973ko Donostiako Zinemaldian film onenaren Urrezko Maskorra eskuratu ostean, kritikaren aldetik txalo eta goraiipamen ugari jaso zituen: "Zurbaran ekartzen du gogora, eta honengandik argiaren abentura zinatografikoki deskribatzen asmatu du", "Haurtzaroari buruzko film onenatariko bat da, ziur aski espainiar paisaian filmaturiko politena..." idatzi zuten garaiko kritikariek.



## IKASTAROAK

### Dantza Ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak jakinarazten duenez, Triska Dantza Taldeak Kiroldegian eskaintzen dituen dantza ikastaroak irailaren 13an hasiko dira berriz. Interesatuak Olaizaga kiroldegira jo dezakete.

### Doako ikastaroak KZgunean

Elgoibarko KZguneak doako ikastaroak eskainiko ditu irailean zehar. Interneten hasteko ikastaroa (20 ordu) irailaren 13tik 24ra bitartean izango da: 18:00etatik 20:00etara. Bertan, ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilatzaileak, posta elektronikoa, Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera, bideokonferentzia, e.a. irakatsiko dira. Nagusiweb ikastaroa, berriz, 50 urtetik gorakoentzako oinarriko internet ikastaroa (10 ordu) izango da. Edukiak honakoak izango dira: ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, informazioa bilatzea, posta elektronikoa eta txata. Irailaren 27tik urriaren 1era arte luzatuko da, 16:00etatik 18:00etara. Mintegiei dagokienez, irailaren 22an hasiko dira 16:00etatik 17:00etara.

### Igeriketa ikastaroak

Igeriketa ikastaroak antolatu ditu Olaizaga kiroldegian. Ikastaroak haur eta helduei zuzenduta daude eta irailaren 13an emango zaie hasiera. Ikastaroetan parte hartzeko Olaizaga kiroldegian eman behar da izena. Epea gaur, hilak 10, amaituko da.

### Masaje ikastaroa

Surya belardendak oinarriko masaje ikastaroa eskainiko du. Bertan, dauden masaje teknika ezberdinak irakatsiko dira. Bederatzi larunbatetako iraupena izango du ikastaroak eta ordutegia honakoa izango da: 10:00etatik 12:30etara. Irailaren 25ean hasiko da.

## DEALDIAK

### Ikastolako ikasle ohien bazkaria

1978an jaio eta Ikastolan 8. mailan elkarrekin ibilitako ikasle ohiek bazkaria egingo dute irailaren 25ean, zapatuan. Izena emateko 30 euroko diru sarrera egin behar da Euskadiko Kutxan, irailaren 20a baino lehen honako zenbakian: 3035 0060 43 0600118628

### Saskibaloj jokalaria behar dira

Elgoibarko saskibaloj taldeak jokalaria behar ditu taldea osatzeko. Beraz, kirol hau gogoko izanez gero, taldeak egiten dituen entrenamenduetara agertzea besterik ez da egin behar. Asteazkenetan entrenatzen dute Olaizaga kiroldegian 20:00ak inguruan.

## TXANGOAK

### Jubilatuen Biltokia Amurrوريا

Jubilatuen Biltokiak Amurrوريا (Araba) txangoa antolatu du irailaren 22rako. Autobusa 8:15ean aterako da Santa Klarako autobus geltokitik. Irteeran parte hartzeko prezioa 22 eurokoa da. Interesatuak Jubilatuak Biltokira jo dezakete.



zine

KARTELDEGIA

### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### “Shrek 2”

10, barixakua: 22:15

11, zapatua: 19:30-22:15

12, domekia: 16:30-19:30-22:15

“El espíritu de la colmena”(Z.K.)

16, eguena: 22:15

### EIBAR, Unzaga

#### “Las crónicas de Riddick”

10, barixakua: 19:30-22:15

11, zapatua: 17:00-19:30-22:30

12, domekia: 17:00-19:30-22:30

13, astelehena: 19:30-22:15

14, martitzena: 19:30-22:15

15, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, Rialto

#### “La sombra de un secuestro”

16, barixakua: 19:30-22:15

17, zapatua: 19:30-22:30

18, domekia: 19:30-22:30

20, astelehena: 19:30-22:15

21, martitzena: 19:30-22:15

22, eguaztena: 19:30-22:15

#### “La vuelta al mundo en 80 días”

17, zapatua: 17:00

18, domekia: 17:00

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## “Shrek 2”

Zuzendaria: Andrew Adamson

Marraski bizidunak

Shrek eta Fiona eztei-bidaia zoragarritik itzuli berri direla, Fionaren gurasoen gonbidapena jasoko dute. Familia afari batetara joateko gonbidapena da. Arazo bat dago, ordea, nola erreakzionatuko ote dute Fionaren gurasoek bera ere ogro bat dela esaten dienean? Aldi berean, Fionaren gurasoek ere beste ezusteko galant bat dute kontatzeko.

ZINEA



# A

ste honetako erretratu zaharra **Juanito Gorostizak** laga digu. 1986. urteko San Bartolome jaietan Txankakuako zubian ateratako argazkia da. Egun honetan, Isidro Langarak antolatuta bazkaria egin zuen koadrila honek Baltasar Pilotazale Elkartean, eta esan digutenez, egun oso polita igaro zuten. Argazki honetan, kirolari ospetsu ugari agertzen dira. Gogora ditzagun zein diren koadrila honetako kideak:

Zutik, ezkerretik eskumara: **Juanito Gorostiza**, **Jose Barrios** (♣) (Athletick-eko jokalaria eta lehenengo mailako hainbat taldetako entrenatzaile ohia), **Jose Mari Rivero** (♣) (lehen mailako eta nazioarteko arbitroa), **Pedro Cañardo** (♣) (Donostiako arrain saltzailea), **Isidro Langara** (♣) (Oviedoko jokalaria eta internazionala), **Felix Garcia** (♣),

**Juan Jose Arrillaga**, **Tomas Ulazia** (mutrikuarra), **Victor Gracia** (♣) (Donostiako "Los Xey" taldeko abeslaria), **Juan Jose Galdos** (pilotazalea), **Telmo Zarraonaindia "Zarra"** (Athletic-eko jokalaria eta internazionala), **Jesus Guerrero** (Isidro Langararen iloba), eta **Sabino Agirre** (Athletic-eko eta Euskal Selekzioko jokalaria. 36ko gerran Mexikora exiliatua).

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Ricardo Suarez** (Elgoibar, Durango, Santander, Erreala eta Granada taldeetako jokalaria), **Marcial Arbiza** (♣) (Real Union eta Real Madrileko jokalaria), **Pedro Artola**, **Ramos San Martin** (♣) (C.D Elgoibarko jokalaria) eta **Joxe Arakistain** (Elgoibar, Eibar, Erreala, Real Madril eta Castelloneko jokalaria).



**URKIDI** AHOLKULARITZA

KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91



**Buleatu S. Coop.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

# SANATANA DHARMA YOGA ELKARTEA



## YOGAREN TEKNIKAK:

Birikak, odola eta zelulak desintoxikatzen ditu.  
Loezina, depresioa eta tristura sendatzen ditu.  
Bizkarrezurraren arazoak zuzentzen ditu.  
Estresa eta nerbio tentsioak ezabatzen ditu.  
Odolaren zirkulazioa hobetzen du.  
Nerbio sistema tonifikatzen du.  
Bizi energia handitzen du.  
Lotsa, histeria eta neurosia garaitzen laguntzen du.  
Oroimena eta adimena garatzen ditu.  
Nortasuna sendotzen du.

## ELGOIBAR

Asteartea - Osteguna  
Goizez 10:00-11:30  
Arratsaldez 15:00-16:30  
18:00-19:30  
20:00-21:30  
Urasandi, 9 behea

## MENDARO

Astelehena - Asteazkena  
Arratsaldez 15:00-16:30  
Kultur Etxean  
Astelehena - Osteguna  
Arratsaldez 20:00-21:30  
Kz gunean

## INFORMAZIOA:

943 74 85 93 (Idoia)  
635 71 55 03

*Anima zaitez!*

# BEGIRALE IKASTAROA EUSKARAZ

## IKASTAROA EGITEKO BALDINTZAK:

- 18 urte beteta edo betetzear izatea
- Euskaraz jakitea
- Debabarrenekoa izatea



Antolatzaileak: Debabarreneko Udalak

**NOIZ:** Urritik maiatzera, larunbatetan.

**PREZIOA:** 200 euro

**IZEN EMATEA:** Irailaren 13tik 24ra  
Elgoibarko Kultur Etxean,  
Euskara Zerbitzuan (943 74 43 66)



Elgoibarko  
Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Eusko  
Jaurlaritza

# GREMIOEN GIDA

## AROSZTEGIAK

### BIENA

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### ETXEKIT

Erreformak-proiektuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### LODOSO

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
☎ 943 74 03 96

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
☎ 943 74 17 61  
☎ 689 04 92 06

### ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia  
☎ 943 74 28 80

### PAGOAGA

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
☎ 943 75 50 62  
☎ 607 75 50 62

### ZALDUA

Urasandi, 26  
☎ 943 74 05 30

## PINTURAK

### BIOK DEKORAZIOA S.L.

Santa Klara, 26 behea ezkerre  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### IPINTZA

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

## ELEKTRIZITATEA

### ARAMAR

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### JOSEBA

Pedro Muguruza, 29  
☎ 943 74 09 02  
☎ 659 93 49 64

### URZELAI

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24  
☎ 943 74 29 87  
☎ 679 19 77 47

### E. ARANDIA

Urasandi, 17  
☎ 605 70 52 04

## ISOLAMENDUAK

### GLAS CONTROL S.L.

Isolamenduak  
Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94